

EUROPEAN DAYS OF LOCAL SOLIDARITY

#LocalSolidarityDays

www.localsolidaritydays.eu



European Days of Local Solidarity ekimenaren gutuna

Europako tokiko gobernuek erakutsi nahi dute aldaketa globalek tokiko ekintzetan dutela oinarria, eta beren herritarrak inplikatu nahi dituzte!




Atarikoak

Europako herri, hiri eta eskualdeek funtsezko eginkizuna dute tokiko garapen iraunkorraren sustatzailer gisa, hala etxean nola atzerrian. Hain zuzen ere, Nazio Batuen 2030 Agendak ezarritako Garapen Iraunkorraren 17 helburuek zuzeneko eragina dute tokiko eta eskualdeko gobernuen politika-eremuetan.

Hirik eta eskualdeek herritarrak informatu eta herritartasun aktiboago eta arduratsuago baten alde mobilizatu behar dituzte, abiapuntu gisa harturik garapen globala gure eguneroko ekintza bakoitzean hasten dela.

2016an, Europako zenbait hirik eta eskualdek eta horietan diharduten elkarteek urtean 2 asteko kanpaina bat elkarrekin antolatzea erabaki zuten, elkartasun globalaren eta garapen iraunkorraren aldeko konpromisoan sakontzeko eta Europaren berezko balio diren demokrazia, aniztasuna eta elkartasuna sustatzeko: horrela jaio ziren tokiko elkartasunaren Europako egunak (European Days of Local Solidarity, EDLS)!

3 helburu

-  1 Herritarrak elkartasun globalaz informatuz eta horren alde mobilizatzuz herritartasun aktiboaren tokiko eragile diren Europako hiri eta eskualdeei babesa ematea.
-  2 Kontzientziazio-lanetan eta elkartasun globalaren alde aktiboak diren Europako hiri eta eskualdeen arteko elkarlana sendotzea.
-  3 Munduko hiri eta eskualdeen arteko kooperazioa eta jakintza-trukea sustatzea (kooperazio deszentralizatua), guztion garapen iraunkor eraginkorra bultzatzeko.

#LocalSolidarityDays



Gure ikuspegia

Guk, EDLSn parte hartzen ari garen Europako tokiko gobernuok, elkartasun globalaren alde konprometituta dagoen tokiko Europa indartsuago batean sinesten dugu!

- Europa demokratikoago, inklusiboago eta indartsuago bat defendatzen dugu, herritarrengandik gertuago egongo dena eta elkartasun globalaren aldeko konpromiso sendoa izango duena.
- Munduko tokiko gobernuen arteko elkartasuna irma babesten dugu, bazkideen arteko erantzunkidetasunean, errespetuan, elkarrekikotasunean eta, karitateaz baztertuz, titulartasun partekatuan oinarritutako hartu-eman bat sortzeko aukera gisa.
- Guztiontzako garapen iraunkorra nahi badugu, sinetsita gaude funtsezkoa dela herritar informatuak eta mobilizatuak izatea.

Batu zaitetz EDLStara!

EDLS-en ekimenak udal zein eskualde mailako mota ugariak jasotzen ditu: handiak, txikiak, landatarrak, hiritarrik... Hauek eta bere Europako bazkideak mundu mailako elkarkidetasunean inplikatu daude.

EDLS-ek txirotasunaren aurka egiteko eta garapen iraunkorraren alde egiteko deialdi egiten die hiritarrei, bertako erakundeei zein unibertsitate eta sektore pribatuetako ordezkariak, besteen artean, udal gobernuak zein eskualdekoekin bat egiteko eta horrela eragin handiagoa izan dezan.

Irakurri eta elkar zaitetz gutunera :
localsolidaritydays.eu/edls-charter/

Erabil ezazu etiketa (hashtag) hau
#LocalSolidarityDays

Gure balioak eta printzipioak

- Europaren berezko balio diren demokrazia, askatasuna, elkartasuna, giza eskubideak eta aukera-berdintasuna.
- Lankidetzaren printzipioa, agintari publikoen, arlo akademikoaren, sektore pribatuaren, gizarte zibileko erakundearen, komunitate kulturalen eta abarren artean.
- Tokiko autogobernantzaren printzipioa, planteamendu demokratiko, bidezko eta eraginkor batean oinarritua.
- Aniztasunaren eta inklusioaren printzipioa, Europako herri, hiri eta eskualde guztietan garapenaren eta elkartasunaren inguruan dauden iritzi eta ikuspegi guztiei ahoetsa emanez.
- Elkartasun globalaren inguruko diskurtso positibo eta baikorra, irudi triste eta errukarriak bazter utziz eta iraunkorrak diren konponbide arrakastatsua eta eraikitzaileetan arreta jarritz.

Bat egin gutunarekin

Izena :

Abizena :

Lanpostu :

Erakundea :

.....

- Eskualde
- Udal edo eskualde mailako gobernuak
- Erakundea, GKE
(Gobernuz kanpoko erakundea)

Posta elektronikoa :

Zenbakia :

Data eta sinadura :